



Gizarte-diagnostikoa egiteko eta bazterkeria ebaluatzeko baliabide bateratuak

TERMINOLOGIA ETA IRIZPIDEAK

Bizikidetzaren arloa

BIZIKIDETZA-ARLOA

Denbora-irizpidea: besterik esan ezean, duela 6 hilabete hasi eta ebaluazio hau egin arteko aldia.

Ebaluazio-irizpidea: Adierazleei balioak eman behar dizkiegu, aztertzen ari garen gizabanakoak emandako informazioa eta, hala badagokio, etxeko bisita egiten duen profesionalak edo beste arloren batean laguntza ematen dion profesionalak hautematen duena oinarri hartuta.

4. ALDERDIA.- OSTATU- ETA ETXEBIZITZA-EGOERA.

Arlo honetan, bi testuinguru bereiziko ditugu: batetik, etxebizitza edo ostatulekua; eta bestetik, haren kokapena. Bertan gertatzen dira norbanakoaren edo familiaren bizikidetzak eta komunitateko bizikidetzak, hurrenez hurren.

Aztertzen ari garen gizabanakoa hiru egoera hauetako batean egon daiteke:

- o Familia-etxebizitza edo -bizileku partikular batean bizi da.
- o Bizileku kolektibo batean bizi da.
- o Ez du ostatulekurik edo ostatuleku baztertzailaetan bizi da.

Beraz, adierazleak aldatu egingo dira, eta balizko egoeren arabera multzokatu.

4.1. adierazlea.- Ostatulekua.

Familia-etxebizitza edo -bizileku partikular batean bizi da.

Etxebizitza edo ostatulekua norberarena da.

Bere etxebizitzan edo ostatulekuan bizi da, bizikidetzak-talde batekin edo bakarrik.

Etxebizitza edo ostatulekua jatorrizko familiarena da.

Arbasoen etxebizitzan edo ostatulekuan bizi da. Arbasoak han bizi dira edo bizi ziren. Ostatulekua senideena da. Haiekin bizi izan da beti, edo haien etxera itzuli behar izan du; izan ere, emantzipazio- edo/eta independentzia-prozesuak porrot egin du.

Etxebizitza edo ostatulekua lehen mailako sarearena da: senitartekoena zein besterena.

Harreman estua du etxebizitzan edo ostatulekuan bizi direnekin (senitartekoekin edo besterekin). Haiengana jo du, laguntza eta ostatuleku bila.

Egoera horretan daude etxeko langileak; izan ere, enplegatzaileak lehen mailako sarearen partetzat hartzen dira —sare hori ez dute senitartekoek osatzen—.

Bizileku kolektibo batean bizi da.

Bizilekuan hainbat pertsona bizi dira: aginte edo araubide komun baten mende daude, eta haien artean ez dago familia- eta bizikidetzak-loturarik.

- Erakundez kanpoko ostatuleku kolektibo batean bizi da.**
 - Pentsio batean.**
 - Ostatu edo apopilo-etxe batean.**
 - Familia-etxebizitza edo -bizileku partikular batean bizi da beste hainbatekin.**

Egoitza berean, hainbat talde edo partikular bizi dira: gelaren bat berentzat soilik erabiltzen dute; beste gela batzuk, ordea, partekatu egiten dituzte. Nork bere ekonomia gobernatzen du. Esate baterako, azpialokatutako etxebizitzak edo bi familiak edo gehiagok partekatutako etxebizitzak.
 - Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ordaindutako bizileku batean.**

Aipatu ditugun erakundez kanpoko bizileku kolektiboak —edozein motatakoak—, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ordainduak.
- Bizileku instituzional kolektibo batean bizi da.**

Bizilagunek ez dute bizilekua kudeatzeko erantzukizunik. Luze egon ohi dira bizilekuan; hau da, instituzionalizatuta daude.

 - Gizarte-zerbitzuena.**
 - Osasun-arlokoa / Gizarte- eta osasun-arlokoa.**
- Bizileku instituzional kolektibo batean bizi da, baina mugak ditu.**

Giltzapean dago zigor bat betetzeko, erantzukizun penal bat edo barnealdia ezarri duen agindu judizial bat tarteko.

 - Osasun-arloko mugak.** Batez ere, psikiatrikoan barneratzeko agindu judizialak.
 - Zigor-arloko mugak.**
 - Atzerritartasun-arloko mugak.**
- Ez du ostatulekurik, edo ostatuleku baztertzailleetan bizi da.**

Bizilekutzat duen etxebizitzak edo ostatulekuak ez du bizikidetzarako esparru egonkorrik ematen edo gizartearen batez besteko estandarretatik urrunarazten du, etxebizitzari eta bizikidetzari dagokionez.

 - Kalean bizi da.**

Hau da: ez du bizikidetzarako esparru egonkorrik ematen dion bizilekurik. Hortaz, kaleak —oro har, eremu publikoak— dira bizikidetzarako eta eguneroko bizitza egiteko esparru fisikoa. Kalean bizi direnen sailkapena:

 - Etxegabea. Eremu publikoetan bizi da.**

Kalean egiten du lo, eta kalean bizi da, eremu publikoetan.
 - Aterpetxeetan egiten du lo. Egunez, eremu publikoetan bizi da.**

Gaueko zerbitzuetan egiten du lo. Egunean zehar, kalean bizi da, eremu publikoetan.
 - Batzuetan kalean, batzuetan bestelako bizileku batzuetan.**

Batzuetan kalean bizi da, eta, beste batzuetan, bestelako bizileku batzuetan. Ezegonkortasuna da nagusi: kalean egiten du lo, eta, aldian-aldian, ostatu hartzen du infraetxeetan, pentsioetan, alokairuko geletan, bizileku instituzionaletan, adiskideen eta ezagunen etxean, eta halakoetan.
 - Infraetxeetan.**

Berez etxebizitza izatea xede ez duen eremu bat da gizabanakoaren (eta, hala badagokio, bizikidetzat-taldearen) ohiko bizileku nagusia.

Eremu hori ez da egokia bizileku izateko; izan ere, ez ditu osasunerako ezinbestekoak diren zerbitzuak, ez du segurtasunik eta erosotasunik eta ez ditu asetzen elikadurarekin lotutako premiak. Infraetxeak dira barrakak, txabolak, ukuiluak, lastategiak, errotak, garajeak, trastelekuak, ganbarak, biltegiak, kobak edo aterpe naturalak, erdi hondatuta edo hutsik dauden higiezinak edo eraikuntzen hondakinak, autoak, furgonetak, etab.

Ostatuleku-motak:

- FINKOAK: esparru erdi iraunkorrak, edo hondakinekin (latekin, kaxekin eta abarrekin) egindakoak, edo etxebizitza gisa erabiltzeko eraiki eta eraberritu ez direnak.
 - IBILTARIAK: karabanak, furgonetak.
 - LEGEZ KANPOKO EGONLEKUAK edo KANPAKETAK (ibilgailuak edo beste mota batekoak).
- Sartzeko eta irteteko erraztasunik ez duen etxebizitza batean.**
Ostatuleku barruan eta kanpoan, arkitektura-oztopoak daude, eta, horregatik, mugikortasun-zailtasunak dituzten gizabanakoak atera ezinik daude. Gizabanako horiek desgaitasun fisikoren bat dute, edo mendetasun-egoeran daude. Edonola ere den, zailtasunak dituzte etxe barruan eta kanpoan ibiltzeko.
- Etxeko indarkeriaren biktima da eta erasotzailearekin bizi da, familia-etxebizitzan.**
Aztertzen ari garen gizabanakoa erasotzailearekin bizi da. Egoera ez da segurua, haren osotasun fisikoa edo/eta psikikoa arriskuan baitago.
- Bat-batean galdu du bizilekua.**
Azterketa egin aurreko hilabetean galdu du etxebizitza, egoera aurreikusitako ezin direla eta.
- 8 hilabete baino lehenago galduko du ostatulekua.**
Ostatuleku bat du (aipatu ditugunetatik edozein), baina 8 hilabete baino lehenago galduko du.

4.2. adierazlea.- Ostatulekuaren egonkortasuna.

4.2.1. Familia-etxebizitza edo -bizileku partikular batean bizi da.

Ez da lekuz aldatzen.

Bizikidetzaren egonkortasunari bide emateko eta onura ateratzeko adina denbora gelditzen da etxebizitza berean.

Egonkortasun eskasa: 2-5 urte.

Gaur egun, egonkortasuna du.

Etxebizitza hainbatetan aldatu du, baina, datozen bi urteetan, egonkortasuna izango duela aurreikusten da.

Aldatu egin beharko du aurki.

Aurki beste norabait joan beharko du bizitzera, lanagatik, gatazka bat izan duelako, banandu egin delako, ezin duelako etxebizitza ordaindu edo ezin duelako ordaintzen jarraitu...

Ez du egonkortasunik.

Gizabanakoa edo haren bizikidetzat-taldea denbora gutxi egoten da etxebizitza berean (2 urte edo gutxiago).

Bi urtetik behin edo gehiagotan aldatu du etxebizitza.

Maiz aldatu du etxebizitza: 3 edo 4 hilabetean behin.

Helbide finkorik gabeko etxebizitzak.

Hilabetean behin edo astean behin ostatulekua aldatzen du. Auzo batetik beste batera joaten da, edo udalerrri batetik beste batera.

4.2.2. Bizileku instituzional kolektiboetan bizi da.

- Egonkortasuna: ez da aurreikusten lekuz aldatuko denik.**

Egonaldi luzea: hitzartua edo ezarria. Aurreikuspenen arabera, delako bizileku instituzionalean jarraituko du.

- Egonkortasuna, baina beste norabait joango dela aurreikusten da:**

2 urte baino gehiago daramatza bizileku berean, baina, aurreikuspenen arabera, epe laburrean (3-8 hilabete barru) edo epe ertainean (9 hiletik 2 urtera arteko epean), aldatu egin beharko du.

Bizileku instituzional kolektiboa.

- Epe laburreko eta ertaineko harrerarako gizarte-zerbitzuetan egindako egonaldia amaitu egin da.**

- Arrazoia:**

- Adina:**

- Medikuaren alta.**

- Zehapen-espedientea, hutsegite larriak egiteagatik.**

Bizileku instituzional kolektiboa, askatasun mugatua duena.

- Zigorraldia amaitu du.**

- Baldintzapeko askatasuna.**

- Hirugarren maila.**

- Agindu judizial baten bidez ezarritako barnealdia amaitu du.**

- Egonkortasun gutxi, edo batere ez.**

Etengabe aldatzen du bizilekua.

- Ospitalean etengabe ematen diote alta eta baja.**

- Epe laburreko harrerarako zerbitzuetan eginiko egonaldia amaitu du.**

- Beste batzuk.**

4.2.3. Ez du bizilekurik, edo bizileku baztertzaillean bizi da.

- Urtebete baino gutxiago egon da egoera horretan.**

- 1-2 urte.**

- 2 urte baino gehiago.**

4.3. adierazlea.- Ohiko bizilekuaren eta ostatulekuaren ingurunea.

- Egokia da gizarteratzeko.**

Zonaldea normaldua da, irisgarritasun-baldintzak betetzen ditu eta oinarrizko zerbitzuak ditu.

- Arrisku-faktoreak ditu.**

Irisgarritasun-arazoak daude. Hondatu samar dago, eta ez da erraza oinarrizko zerbitzu guztiak eskuratzea.

- Bazterkeria-faktoreak ditu.**

Zonaldea degradatuta dago, eta zailtasun handiak daude oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko. Irisgarritasun-arazoak daude.

- Ez da zertan ebaluatu.**

Ez da zertan ebaluatu, baldin eta gizabanakoa bizileku instituzional batean badago.

Bizilekurik gabeko gizabanakoen kasuan, haien egoera kontuan hartuta adierazgarria dela irudituz gero, ebaluatu egingo da.

4.3.1. adierazlea.- Oinarrizko zerbitzuak eskuratu ahal izatea.

□ Oinarrizko zerbitzu egokiak ditu.

Egokitzen jotzeko, zerbitzu hauek egon behar dute:

- Ur-hornidurako sare publikoa, saneamendu eta estolderia publikoa, argia, zakar-bilketa, fumigatze-kanpainak, arratoiak hiltzeko kanpainak, izurriteen kontrola.
- Oinarrizko premiak asetzeko oinarrizko kontsumo-zerbitzuak, hots, botikak, dendak eta halakoak (irispidean egon behar dute).
- Osasun-zentroak, eskolak eta kultur guneak (irispidean egon behar dute).
- Kultura-, kirol-, erlijio-, aldarrikapen- eta aisialdi-talde formalak eta informalak.
- Garraio publikoa, auzo edo zonalde barruan eta kanpoan leku batetik beste batera ibiltzeko ibilbide eta ordutegi aproposak dituenak.

□ Oinarrizko zerbitzu ezegoki samarrak ditu.

Ezegoki samartzat joko dira, baldin eta egoera hauek jazotzen badira:

- Zerbitzu hauek hein batean falta dira edo gabezia kronikoak dituzte: ur-hornidura, saneamendu eta estolderia publikoa, argia, zakar-bilketa, fumigatze-kanpainak, arratoiak hiltzeko kanpainak, izurriteen kontrola.
- Zaila da zerbitzuak eskuratzea, urruti daudelako edo garestiak direlako. Gerta daiteke zerbitzu batzuk ez izatea.
- Garraio publikoa eskasa da, eta hainbat zerbitzu eskuratzea eragozten du.

□ Zerbitzu ezegokiak ditu.

Geografikoki eta sinbolikoki bakartuta dago, eta, horren erruz, gabeziak ditu edo ez du zerbitzurik.

Gizarte-babeserako zerbitzu publikoetatik (hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuetatik) bakartuta dago.

Ez dago garraio publikorik, ez eta pribaturik ere.

4.3.2. adierazlea.- Ostatulekuaren kokapena.

□ Normaldua.

Ostatulekua normalduzat joko da, baldin eta alderdi hauetako hiru baldin baditu, gutxienez:

- Eremu publikoa behar bezala zainduta dago: kale-plazak, lorategiak, bide-seinaleak...
- Eraikinak eta etxebizitzak behar bezala zainduta daude.
- Gizarte-kohesioa dago; hots, gizabanakoen arteko konfiantza, lankidetzeta eta elkartasuna. Gizarte-sareak daude, eta talde-identifikazioa.
- Herritarren segurtasuna.
- Gizarteak eremua onesten du.

□ Zonaldea hondatu samar dago.

Hondatu samartzat joko da, baldin eta bi alderdi hauek baditu, gutxienez:

- Eremu publikoa ez dago behar bezala zainduta.
- Eraikinak eta etxebizitzak ez daude behar bezala zainduta.

□ Zonalde degradatua.

Degradatutzat joko da, baldin eta alderdi hauetako 3 edo gehiago baditu:

- Eremu publikoa degradatuta dago.
- Eraikinak eta etxebizitzak degradatuta daude.
- Ez dago gizarte-kohesiorik.
- Herritarrek ez dute segurtasunik.
- Gizarteak eremua gaitzesten du: estigmatizatuta dago.

4.3.3. adierazlea.- Irisgarritasuna, oztopoak.

Hirigintzaren, eraikinen, garraioaren, komunikabideen eta beste edozein produkturen edo zerbitzuren ezaugarriek bide eman behar diete pertsona guztiei produktu eta zerbitzu horiek ahalik eta autonomia handienaz erabiltzeko.

Oztopoak:

- o Maldak, eskailerak eta aldapa malkarrak.
- o Lurzoru irristakorrak, barandarik ez izatea.
- o Pasarte estuak.
- o Zola ezegokiak: galtzada-harriak, juntura apaingarriak...
- o Atsedeen hartzeko lekurik ez izatea.
- o Seinale eta informazio bisualak soilik: idazkunak, seinaleak, kartelak...
- o Oztopoak hautemateko zailtasunak (maldak, koskak, etab.), distantziak kalkulatzeko zailtasunak.
- o Argi-intentsitatea bat-batean aldatzea.
- o Seinale akustikoak (alarmak, ahotsa, txirrinak, etab.) hautematea eta nondik datozen jakitea galarazten duten zaratak.
- o Komunikazio-arazoak: azpitolurik ez izatea, zeinu-hizkuntzako interpreterik ez izatea...

Irisgarritasun-arazorik ez / Ez dagokio.

Ez dago oztoporik, mugikortasuna, komunikazioa eta norberaren etxebizitzara eta ekipamendu publikoetara sartzeari galarazten duenik.

Zenbait oztopo.

Aipatu ditugun oztopoetako bi daude, edo antzeko beste batzuk.

Irisgarritasun-arazo larriak.

Aipatu ditugun oztopoetako hiru daude, gutxienez, edo antzeko beste batzuk.

Ez dagokio.

Ez du irisgarritasunarekin lotutako arazorik.

4.A. ALDERDIA.- FAMILIA-ETXEBIZITZA PARTIKULARRA ETA ERAKUNDEZ KANPOKO OSTATULEKU KOLEKTIBOA.

4.A.1. adierazlea.- Etxebizitzako bizilagunak.

Etxebizitzan, bizikidetza-unitate bakar bat bizi da.

Etxebizitzan, gizabanakoa bera, familia-unitate bat edo bizikidetza-talde bat bizi da.

Etxebizitzan, hainbat familia- edo bizikidetza-unitate bizi dira. Etxebizitza partikularra da.

Etxebizitzan, hainbat bizikidetza-unitate bizi dira. Senideak izan daitezke edo ez.

Jatorrizko familiaren etxebizitzara itzuli dira edo bertan bizi dira:

Emantzipatzeko zailtasunak dituztelako.

Familia bat osatu ezin duten gazteak.

Independizatzeko zailtasunak dituztelako.

Familia bat osatu ezin duten gazteak, edo, familia bat osatu ostean, familiaren etxebizitzara itzuli behar izan duten gazteak.

Zailtasunak ekonomikoak izan daitezke, edo autonomia mugatuarekin (desgaitasun larria, mendetasuna), kulturarekin eta gaitasunekin (gizarte-gaitasun gutxi izatea, eguneroko bizitza antolatzekeko zailtasunak izatea...) edo beste alderdi batzuekin loturikoak. Zailtasun horiek beste arlo eta adierazle batzuetan zehaztuko ditugu.

Etxebizitza berean bizi dira, eta alokairua partekatzen dute.

Alokairua hainbat pertsonak, familia-unitatek edo familia-bizikidetzako unitatek partekatzen dute.

- Etxebizitza berean bizi dira, azpialokairuan.**
Etxebizitza alokatzen duenak gelak alokatzen dizkie beste pertsona edo bizikidetzaren unitate batzuei.

- Ostatuleku kolektibo bateko etxebizitza batean, hainbat familia- edo bizikidetzaren unitate bizi dira.**

- Ostatu batean edo apopilo-etxe batean.**
Etxebizitza horretan, hainbat pertsonak hartzen dute ostatu. Ez dira legearen arabera ezarritako pentsioak.
- Pentsio batean.**

4.A.2. adierazlea.- Etxebizitza jabetzaren ikuspegitik nola duten.

- Etxebizitzaren jabea da:**

Gizabanakoak edo bizikidetzaren taldeak etxebizitza erosi zuen, horretarako kaudimena zuen eta. Horrek ez du esan nahi gaur egun etxebizitza mantentzeko kaudimena duenik.

- Etxebizitza ordainduta**
- Oraindik ordaintzen**

- Etxebizitza bat alokatzen du:**

Gizabanakoak edo bizikidetzaren taldeak etxebizitza alokatzen du. Horrek ez du esan nahi, ezinbestean, erosteko kaudimena ez duenik. Dena den, oro har, alokatzea edo azpialokatzea ekonomia-arazoekin lotuta dago.

- Alokairua**
- Azpialokairua**
- Alokairu partekatua**

- Egoera ezegonkorra.**

Etxebizitzan bizi direnek ez dute segurtasunik.

- Jabeak doan utzi dio etxebizitza.**

Etxebizitzaren jabeak etxebizitza erabiltzen utzi dio, doan. Kasu batzuetan, zerbitzuren baten truk; etxea, abereak, laboreak eta halakoak zaintzearen truk.

- Etxebizitza bat alokatzen du, legeztatu gabe.**

Gerta daiteke legezko kontraturik ez izatea, jabeak azpialokairua berariaz onartu ez izana, eskura ordaintzea (ordainagiririk gabe) eta abar.

Edonola ere, maizterrak babesgabe daude: jazarriak edo kaleratuak izan daitezke, edo prezioa neurrigabeki igo daiteke.

Horretaz gainera, kasu batzuetan, ezin dute udalerriko erroldan izena eman.

- Etxebizitza bat okupatzen du, legez kanpo.**
- Etxeko langilea da, eta nagusiaren bizikidetzaren unitatearekin bizi da.**

4.A.3. adierazlea.- Etxebizitzako bizitzeko baldintzak.

Adierazle hau aztertzeko, bizitzeko gutxieneko baldintzak hartuko ditugu kontuan; abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketaren babestuei buruzkoan, ezarritakoak, hain zuzen. Dokumentu honen 1. eranskinean, dekretu horren 4. eranskinean jasotako baldintzen zerrenda dago.

- Baldintza egokiak.**

Etxebizitza batek baldintza egokiak dituela esango dugu, baldin eta egitura-arazorik gabeko eraikin batean badago eta, horretaz gainera, aipatutako gutxieneko baldintzak betetzen baditu.

Etxebizitza hondatu samar dago.

Etxebizitzak ez ditu betetzen aipatutako gutxieneko baldintzak, bai, ordea, baldintza hauek:

- o Ur-, saneamendu- eta argindar-instalazioak ditu, bai eta isolamendu termikoa ere.
- o Komun osoa du.
- o Sukaldea, logela eta komuna bereizita daude.

Etxebizitza hondatuta dago.

Etxebizitzak ez ditu baldintza gehienak betetzen; bereziki, ez dago sukalderik, ezta komunik ere, edo oso egoera txarrean daude, edo logelan bertan daude. Halaber, ur-, saneamendu- eta argindar-instalazioak eta isolamendu termikoa oso egoera txarrean daude.

Ez da bizitzeko egokia.

Erortzeaz dago: eraikuntza-akats larriak ditu, ez dago behar bezala zainduta, ez ditu sukaldeko eta komuneko oinarrizko instalazioak.

Zikinkeriaz beteta dago (Diogenes).

Osasun-baldintza txarrak.

Bizitzeko baldintzak kaltegarriak dira osasunerako: aireztapena, argia, hezetasuna, zikinkeria, tenperatura, usainak, zarata etengabea...

Jende gehiegi pilatuta.

Batez bestean, 15 m² baino gutxiago pertsona bakoitzeko.

4.A.4. adierazlea.- Arkitektura-oztopoak.

Hau da: etxebizitza barruan eta kanpoan ibiltzea galarazten edo mugatzen duten oztopo fisikoak. Oztopo horiek direla eta, gizabanakoak ez du guztizko autonomia pertsonala etxebizitza erabiltzeko. Esate baterako: egoitza barruan oztopoak egotea, igogailurik ez izatea eta sartzeko arrapalarik ez izatea.

Gizabanakoak mugikortasun-mugak izanez gero aztertuko dugu adierazle hau.

Oztoporik ez / Ez dagokio.

Oztopoak badaude, baina ez dira handiak.

Oztopo handiak daude.

Mugitzeko askatasuna eragozten duten oztopoak daude etxebizitzan. Gizabanakoa zonalde batzuetan soilik ibil daiteke; norbaiten laguntzarik gabe ezin ditu ekipamenduak erabili.

4.A.5. adierazlea.- Etxebizitzaren ekipamendua.

Etxeko OINARRIZKO EKIPAMENDUTZAT jotzen dira:

- o hozkailua, garbigailua
- o tresneria, mihiseria
- o altzariak: ohea, gau-mahaia, armairua, mahaiak, aulkiak, sofa...
- o telebista, sukaldea, mikrouhin-labea
- o erabateko irisgarritasuna bermatzen duten elementuak, baldin eta etxebizitzan bizi direnek mugikortasun-zailtasunak badituzte.

Beharrezko guztia du.

Oinarrizko ekipamendua du, eta ekipamendua egoera onean dago.

Zenbait gauza falta dira, edo hondatuta daude.

Oinarrizko ekipamenduren bat-edo falta da edo/eta hondatuta dago.

Ez ditu oinarrizko gauzak.

Oinarrizko ekipamendu batzuk falta dira: ez dute baliabiderik ekipamendu horiek erosteko.

4.A.6. adierazlea.- Hornidura.

Hona hemen etxebizitzako oinarrizko hornigaiak eta zerbitzuak:

- o iturriko ura, ur beroa
- o argindarra, berogailua
- o hondakin-urak bideratzeko sistema
- o telefono-linea, Internet jartzeko aukera
- o etxebizitzaren aseguruia

Badu oinarrizko hornidura.

Etxebizitzak oinarrizko hornidura du.

Hornigairen bat falta da.

Hornidura-sareek gabeziak dituzte, edo hondatuta daude: batzuetan ez da hornidurarik izaten, matxura batzuk aspalditik daude konpondu gabe...

Ez du oinarrizko hornidura.

Oinarrizko hornigai batzuk beti eta beti falta ditu.

4.B. ALDERDIA.- BIZILEKU INSTITUZIONAL KOLEKTIBOA.

4.B.1. adierazlea.- Familia-etxebizitza edo -ostatuleku partikular bat izatea.

Hau da: establezimendu instituzional kolektibo batean ostatu hartu duten gizabanakoek etxebizitza edo ostatuleku partikular bat duten ala ez. Etxebizitza edo ostatuleku bat izanez gero, horrek esan nahi du barnealdia —borondatezkoa edo askatasuna mugatzekoa— amaitzean ostatuleku bat izango dutela, bai eta zenbait erantzukizun izango dituztela ere, jabe edo maizter diren aldetik.

Badu / Ez dagokio.

Izan dezake, behar izanez gero.

Ostatuleku bat izan dezake, baldin eta bere etxebizitzara sartzeko edo hura egokitzeo kudeaketak egiten baditu edo lehen mailako sareari laguntza eskatzen badio.

Ez du.

Ez du etxebizitzarik eta ostatulekurik, eta ezin du familia-etxebizitza erabili.

4.B.2. adierazlea.- Eskura dagoen etxebizitzaren edo bizilekuaren bizitzeko baldintzak.

Etxebizitzaren bizitzeko baldintzei buruzko 4.A.3. adierazlearen antzera aztertuko dugu. Ikus dokumentu honen 1. eranskina.

Baldintza egokiak.

Etxebizitza batek baldintza egokiak dituela esango dugu, baldin eta egitura-arazorik gabeko eraikin batean badago eta, horretaz gainera, lehen aipatutako gutxieneko baldintzak betetzen baditu.

Hondatu samar dago.

Etxebizitzak ez ditu betetzen aipatutako gutxieneko baldintzak, bai, ordea, baldintza hauek:

- o Ur-, saneamendu- eta argindar-instalazioak ditu, bai eta isolamendu termikoa ere.
- o Komun osoa du.
- o Sukaldea, logela eta komuna berezita daude.

Etxebizitza hondatuta dago.

Etxebizitzak ez ditu baldintza gehienak betetzen; bereziki, ez dago sukalderik, ezta komunik ere, edo oso egoera txarrean daude, edo logelan bertan daude. Halaber, ur-, saneamendu- eta argindar-instalazioak eta isolamendu termikoa oso egoera txarrean daude.

4.C. ALDERDIA.- EZ DU BIZILEKURIK, EDO BIZILEKU BAZTERTZAILEETAN BIZI DA.

Bizilekurik ez duela esango dugu, baldin eta gizabanakoa egoera hauetakoren batean edo antzeko batean badago:

Infraetxeetan.

Berez etxebizitza izatea xede ez duen eremu bat da gizabanakoaren (eta, hala badagokio, bizikidetza-taldearen) ohiko bizileku nagusia.

Eremu hori ez da egokia bizileku izateko; izan ere, ez ditu osasunerako ezinbestekoak diren zerbitzuak, ez du segurtasunik eta erosotasunik eta ez ditu asetzen elikadurarekin lotutako premiak. Infraetxeak dira barrakak, txabolak, ukuiluak, lastategiak, errotak, garajeak, trastelekuak, ganbarak, biltegiak, kobak edo aterpe naturalak, erdi hondatuta edo hutsik dauden higiezinak edo eraikuntzen hondakinak, autoak, furgonetak, etab.

Bizileku-motak:

- FINKOAK: esparru erdi iraunkorrak, edo hondakinekin (latekin, kaxekin eta abarrekin) egindakoak, edo etxebizitza gisa erabiltzeko eraiki eta eraberritu ez direnak.
- IBILTARIAK: karabanak, furgonetak.
- LEGEZ KANPOKO EGONLEKUAK edo KANPAKETAK (ibilgailuak edo beste mota batekoak).

Sartzeko eta irteteko erraztasunik ez duen etxebizitza batean.

Bizileku barruan eta kanpoan, arkitektura-oztopoak daude, eta, horregatik, mugikortasun-zailtasunak dituzten gizabanakoak atera ezinik daude. Gizabanako horiek desgaitasun fisikoren bat dute, edo mendetasun-egoeran daude. Edonola ere den, zailtasunak dituzte etxe barruan eta kanpoan ibiltzeko.

4.C.1. adierazlea.- Kalean bizi da, eta kalean egiten du lo.

Hilean 15 gau baino gutxiago.

Batzuetan, kalean egiten du lo, eta, beste batzuetan, pentsioetan, autoetan, ezagunen etxean, ostatuetan (neguan)...

- Maiz: Hilean 15-20 gau.**
Ostatuetan eta kalean egiten du lo. Neguan ostatulekuetara joaten da.
- Ia gauero.**
Azken 6 hilabeteetan, kalean egin du lo, ia gauero. Neguan ere ez da ostatulekuetara joaten.

4.C.2. adierazlea.- Kalean bizi direnen leku-aldaketak.

- Ez da lekuz aldatzen.**
- Aldizka aldatzen da lekuz, garaiaren arabera.**
- Etengabe aldatzen da lekuz.**
Bizitza nomada du. Ez dago errolatuta.

4.C.3. adierazlea.- Infraetxeetan bizi direnen egoera.

- Segurtasun fisikorik eza.**
Bizilekuak oinarrizko gabeziak ditu, egiturari, zerbitzu-hornidurari, egokitzapenari eta irisgarritasunari dagokionez, eta gabezia horiek gizabanakoaren osasunari eragiten diote edo, etorkizunean, osotasun fisikoari eragingo diote.
Bizilekua arriskuan dago: gerta daiteke, besteak beste, eraitsia izatea, urez betetzea edo instalazio arriskutsuen erruz istripuak gertatzea.
- Bizileku mugikorra, ibiltaria.**
Ostatulekua mugikorra da. Zonalde batean kokatzen da denboraldi jakin batez, bertan betiko gelditzeko asmorik gabe.
Batzuetan, egonleku batzuk "oinarrizko kanpamendu" bilakatzen dira, eta, han, jarduera batzuk egiten dituzte denboraldi jakin batez. Halaber, gerta daiteke delako ostatuleku mugikorra aldizka erabiltzea. Batzuk aldatu egiten dira, edo desagertu.

4.C.4. adierazlea.- Bizilekua galtzea.

- Bat-batean galdu du bizilekua:**
Ustekabean galdu du ostatulekua.
 - Larrialdi arrunt bat gertatu da (sutea, uholdeak, etab.).**
 - Familia-bizileku partikularretik bota dute.**
Harreman-gatazkak, indarkeria, gaitzespena, bizikidetzaren aldatzen duten osasun-egoerak edo bestelako arazoiren bat dela eta, familia-bizilekutik bota dute.
 - Familia-bizileku partikularra utzi du, edo bertatik ihes egin du.**
Familia-bizilekua utzi du, gatazkak zituztelako edo ez zituelako familia-bizikidetzako arauak onartzen. Edo, haren osotasun fisikoa eta psikikoa arriskuan zegoenez, ihes egin du.
 - Bizileku instituzional batetik bota dute.**
 - Bizileku instituzionala utzi du, edo bertatik ihes egin du.**
Bere kabuz erabaki du bizileku instituzionala uztea.
 - Beste batzuk.**
- Esan diote etxebizitza 8 hilabete baino lehenago galduko duela.**
Balizko egoerak:
 - Etxebizitza utzarazi diote.**
Prozedura judiziala jada egin dute, edo egiten ari dira.
 - Alokairu babestuko bizilekua galdu du.**
Ez du betetzen araudian alokairu babestua eduki ahal izateko ezarritako baldintzaren bat (diru-sarrerak, arauak ez betetzea, etab.).
 - Urruntze-agindu bat bete behar du.**

- Establezimendu instituzional batean eginiko egonaldia amaitu da.**
 - Egonaldi laburreko eta ertaineko harrera-zerbitzuetan eginiko egonaldia amaitu da.**
 - Adinez nagusia da.**
 - Kanporatu egin dute.**
 - Zigorraldia amaitu du.**
 - Agindu judizial bat dela-eta osasun-establezimendu batean egin behar izan duen barnealdia amaitu da.**
 - Beste batzuk.**

5. ALDERDIA.- LOTURA AFEKTIBOAK ETA GIZARTE-LAGUNTZA.

5.1. adierazlea.- Harreman eta lotura afektiboak.

Hau da: norekin dituen lotura afektiboak (lotura afektibotzat hartzen dira elkar zaintzea eta intimitatea partekatzea xede duten harreman egonkorrak).

Gizabanakoak berak aipatzen dituen harremanak hartuko ditugu kontuan, bai eta harekin daudenek aipatzen dituztenak eta harekin harremanetan dauden profesionalak aipatzen dituztenak ere.

- Harreman eta lotura afektibo estuak ditu 8 pertsonarekin, gutxienez.**
- Harreman eskasak eta lotura afektibo ahulak ditu: 8 pertsona baino gutxiagorekin ditu harremanak.**
- Ez du lotura afektiborik.**

5.2. adierazlea.- Jasotzen duen laguntza soziala.

Benetakoa laguntzaz ari gara, ez jasotzea espero duen laguntzaz.

- Behar adina laguntza sozial jasotzen du, edo ez du halakorik behar.**

Etengabe eta testuinguru orotan jasotzen du laguntza soziala.

- o Laguntza materiala.
- o Laguntza instrumentala.
- o Laguntza kognitiboa.
- o Laguntza emozionala.

- Behar baino laguntza sozial gutxiago jasotzen du.**

Batzuetan eta testuinguru jakin batzuetan jasotzen du.

- o Laguntza materiala.
- o Laguntza instrumentala.
- o Laguntza kognitiboa.
- o Laguntza emozionala.

- Ez du laguntza sozialik jasotzen.**

Ez du ia inoiz laguntza sozialik jasotzen.

- o Laguntza materiala.
- o Laguntza instrumentala.
- o Laguntza kognitiboa.
- o Laguntza emozionala.

LAGUNTZA SOZIAL MOTAK. ZENBAIT ADIBIDE:

LAGUNTZA MATERIALA

- o Dirua
- o Diru-maileguak
- o Janaria
- o Etxeko tresnak: altzariak, mihiseria, etxetresna elektrikoak

- o Arropa, oinetakoak
- o Zerbitzuak ordaintzea: jantokia, sendagilea, ikastaroak, gida-baimena, optika, kirolak, aisialdia...
- o Ostatu ematea, etxebizitzako sarrera ordaintzea (alokairu-bermea, eskriturak...)
- o Telefono-faktura, Internet

LAGUNTZA INSTRUMENTALA

- o Seme-alabak, aitona-amonak, eriondoan dauden pertsonak edo elbarriak zaintzea, garbitzea, haien pixoihalak aldatzea, haietaz arduratzea eta haiekin hitz egitea.
- o Etxeko eguneroko egitekoak: garbitzea, janaria prestatzea, arropa lisatzea. Animaliak eta landareak zaintzea.
- o Burokraziarekin lotutako kudeaketak, gutunak jasotzea, egunkaria eramatea, erosketak egitea, gas-bonbonak igotzea...
- o Osasun-, lan- eta gizarte-arloko zerbitzuetara joaten laguntzea, bai eta kudeaketak egiten laguntzea ere.
- o Pasean ibiltzea, garraioa eskaintzea...
- o Ikasten laguntzea.

LAGUNTZA KOGNITIBOA

- a) Informazioa ematea, informazio hori egoera problematikoei aurre egiteko erabil dezaten. Informazioa arlo hauetakoa izan daiteke:
- o Gizarte-eskubideak eta -baliabideak.
 - o Herrialde hartzaileko jokamoldeak eta ohiturak.
 - o Kredituak, kontsumorako produktuak, aisialdiko jarduerak.
 - o Lan-orientazioa.
 - o Osasun-zaintza, gaixotasun batekin bizitzen jakitea.
 - o Seme-alaben zaintza eta hezkuntza, zaharren zaintza, gaixotasunei nola aurre egin, tratamenduak...
- b) Ebaluazioa: aholkuak eta indartze positiboa
- o Bizitzako gertakari estresagarriei eta eguneroko bizitzako arazoei buruzko aholkuak.
 - o Nola jokatu arlo hauetan gertatzen diren egoeretan: lana, bizitza soziala, hezkuntza, familia, intimitatea, bizitza afektibo-sexuala, eguneroko bizitzaren antolaketa.

LAGUNTZA EMOZIONALA

- o Bizipen emozionalak eta sentimenduak komunikatzea.
- o Kezka.
- o Enpatia.
- o Afektua.

5.3. adierazlea.- Lehen mailako sareen —senitartekoen zein besteren— laguntza soziala.

Hemen ere, benetako laguntzaz ari gara, ez jasotzea espero duen laguntzaz.

- **Baditu laguntza emateko prest dauden senitartekoak edo/eta lagunak.**
Senideek eta lagunak egoera jakin bat bizi dute, eta, egoera horri aurre egiteko, antolatu egiten dira eta elkarri laguntzen diote. Gizabanakoa zaindua, aintzatetsia eta balioetsia sentitzen da, eta elkarrenganako betebeharrak dituzten pertsonak osatutako komunikazio-sare baten kide dela sentitzen du.

□ **Senitarteko edo/eta lagun gutxi ditu. Laguntza gutxi jasotzen du, edo noizbehinka.**

Senitartekoak eta lagunak ditu, baina lotura ahula du haiekin: laguntza gutxi jasotzen du, edo noizbehinka. Egoera hauek familia-lotura ahulen seinale dira:

□ **Senitartekoen laguntza-sarea gainezka dago.**

Laguntza eman ohi dioten pertsonak nekatuta edo gainezka daude; izan ere, etengabe eskatzen diete laguntza, eta ahal duten guztia egiten dute laguntza emateko.

□ **Aldi baterako laguntza: txandakakoa.**

Aldi baterako eta txandaka etxe batetik beste batera ibiltzen diren adinekoen familia-loturen ahultzeaz ari gara. Adinekoek etengabe egokitu behar dute, eta horrek ahalegin handia eskatzen du. Halaber, etxeak urrun badaude, bakartu egingo dira, fisikoki eta sozialki. Sarri, ez dute gela bat izaten berentzat, eta, horregatik, ez dute pribatutasunik izaten. Beren bizitza ez kontrolatzeak pasibotasuna dakar, bai eta beren ongizatearekiko erantzukizun eza eta autoestimua gainbehera ere. Hori guztia dela eta, senti dezakete "kokalekurik gabe daudela", "alferrikakoak direla" edo/eta "zama direla".

□ **Familia-sarea ez dago laguntzeko prest.**

Lehen mailako sareko pertsonak ez daude laguntzeko prest. Kontua ez da arazo materialak dituztela, baizik eta interesik ez dutela.

□ **Familia bananduta dago, emigrazioa dela eta.**

Laguntza-sareak ditu jatorrizko herrialdean. Handik, laguntza emozionala, kognitiboa eta materiala jasotzen du, beti ez bada ere. Distantzia dela eta, ezin diote laguntza instrumentalik eman.

□ **Urruntze-agindu bat dela eta, urruntzera behartuta dago.**

Bizilagun zituen senitartekoekin harremanetan dago, baina urruntze-agindu batek etxebizitza utzarazi dio. Nahiz eta senitarteko guztiekin edo batzuekin liskartuta egon, laguntza jasotzen du.

□ **Senitartekoek eta lagunek, beren egoera dela eta, ezin diote laguntzarik eman.**

Senitartekoek eta lagunek ezin diote lagundu, laguntza ematea galarazten edo eragozten duten egoerak bizi dituzte eta (gizarte-bazterkeria, autonomia galtzea, narriadura kognitiboa...).

□ **Ez du laguntza soziala emango dion lehen mailako sarerik.**

Ez du laguntza eman diezaiokeen inor. Senitartekoek, lagunek, auzokideek eta ezagunek ez diote inolako laguntzarik ematen: ezin dute laguntzarik eman edo ez dute laguntza emateko asmorik.

□ **Senitartekoek eta adiskideek ez dute laguntza-sare bat osatzen.**

Senitartekoak edo lagunak izan baditu, baina ez dute laguntza-sare bat osatzen.

□ **Ezin diote lagundu.**

Lagundu liezaioketen pertsonak oso gizarte- edo osasun-egoera kaskarrean daude.

□ **Baztertu edo mespretxatu egiten dute.**

Lagundu liezaioketen pertsonak baztertu edo mespretxatu egiten dute.

□ **Ez dute loturarik.**

Harremanek okerrera egin dute, eta ez dute loturarik (ez dute intimitaterik, axolagabekeria da nagusi, ez dute itxaropenik harremanak egiteko, ez daude libre, aspalditik ez dute elkarren berri izan).

□ **Ez du senitartekorik eta adiskiderik.**

Ikusten denez, ez du ez senitartekorik ez adiskiderik.

5.4. adierazlea.- Bigarren mailako laguntza-sare komunitarioen laguntza soziala.

- Bigarren mailako laguntza-sare komunitarioak ditu.**
Sare komunitarioetako pertsonekin elkartzen da eta harremanak egiten ditu. Pertsona horiek lagundu egiten diote.
- Lotura ahula du bigarren mailako laguntza-sare komunitarioekin.**
Harreman eskasa du sare komunitarioetako pertsonekin, eta noizbehinka baino ez diote laguntza ematen. Horretaz gainera, ez dira elkartzen eta loturak ahulak dira.
- Ez du bigarren mailako laguntza-sare komunitarioirik.**
Ez du bigarren mailako laguntza-sarerik. Ez du bere herrian edo auzoan dauden erakundeen (boluntarioen elkarteen eta bestelako elkarteen) berri.

Bigarren mailako laguntza-sare komunitarioen motak (1 eta 2 aukerak):

- o Boluntarioak.
- o Denda txikiak eta ertainak.
- o Kultura-, erlijio- eta kirol-elkarteak.
- o Gizarte-ekintzako edo -zerbitzuetako profesionalak eta langileak.
- o Gizarte-elkarteak.
- o Beste batzuk.

5.5. adierazlea.- Bigarren mailako sare instituzionalen laguntza soziala.

- Badu bigarren mailako laguntza-sare instituzional bat / Ez du halakorik behar.**

Sare horietako profesionalekin harremanetan dago eta haien laguntza du, edo, hala badagokio, ez du halakorik behar, lehen mailako sareen eta bigarren mailako sare komunitarioen laguntza jasotzen du eta.

- Gizarte-sare bat du, eta laguntza instituzionala jasotzen du etengabe.**

Behar duen laguntza instituzionala jasotzen du arlo hauetan: eguneroko bizitza, ostatua, diru-sarrerak, bizikidetzeta eta osasuna.

- Laguntza instituzionala jasotzen du, baina laguntza mugatua da.**
Erakunde batean dago, eta erakunde horren laguntza etengabea jasotzen du, testuinguru hauetan: eguneroko bizitza, ostatua eta osasuna.

Gerta daiteke premia emozionalak, sozialak eta parte hartzearekin lotutakoak guztiz ez asetzea.

- Ez du laguntzarik behar.**

- Laguntza gutxi jasotzen du bigarren mailako sare instituzionaletatik:**

Hainbat arrazoi direla eta, laguntza eskasa da:

- o Bigarren mailako sare instituzionalek ezin diote lagundu, baliabideak ez dira egokitzen gizabanakoaren profilerak eta bizi-ibilbidera, ez du laguntza horien berri.
- o Ez ditu eskakizunak betetzen.
- o Ez du horrelako sareetara jotzen.

- Salbuespenezko laguntza instituzionala: osotasun fisikoa eta psikikoa arriskuan daudenean baino ez.**

Ospitaleratze osteko susperraldian, hilurreneko egoeran dagoenean, neguan eta beste egoera jakin batzuetan baino ez du laguntza.

- **Laguntza instituzional ez-jarraitua: gizarte-laguntza ematen denean baino ez.**

Noizbehinka baino ez du laguntza jasotzen. Hori dela eta, laguntza instituzionalik ez duenean, ez du bere kasa garatzea lortzen.

- **Ez du bigarren mailako laguntza-sare instituzionalik.**

Ez du erakunderik, edozein testuingurutan behar duen laguntza emango dionik.

6. ALDERDIA.- HARREMAN-EGOERA, BIZIKIDETZA-ARLOAN.

6.1. adierazlea.- Harreman-egoera, bizikidetza-arloan.

Aztertzen ari garen gizabanakoa hiru egoera hauetako batean egon daiteke:

- Etxebizitza edo ostatuleku partikular batean bizi da.
- Etxebizitza kolektibo batean bizi da.
- Ez du ostatulekurik edo ostatuleku baztertzaile batean bizi da.

Beraz, adierazleak aldatu egingo dira, eta balizko egoeren arabera multzokatu.

6.1.1. adierazlea.- Bizikidetza-taldearen familia-lotura edo lotura afektiboa.

- **Harreman positiboak.**

Lotura positiboak dituzte. Ez dago gatazka aipagarrikerik bizikidetzaren arlo bakar batean ere (hots, bikotekideen, gurasoen, seme-alaben, neba-arreben, aitona-amonen eta abarren artean). Bizikidetzak berekin dakartzan gatazkak behar bezala konpontzen dira.

- **Harremanek okerrera egin dute:**

Loturak ahuldu egin dira, eta harremanek okerrera egin dute. Gerta daiteke kide ahulenek, hots, adingabeek eta adinekoek —desgaitasunen bat edo mendetasuna dutenek— behar baino arreta gutxiago jasotzea.

- **Zaila da elkarrizketan jardutea.**

Komunikazioa ez da elkarrizketan oinarritzen: ez dituzte besteen mezuak kontuan hartzen, nahasmendua da nagusi, ez dituzte besteen premiak errespetatzen... Batzuetan, oldarka komunikatzen dira.

- **Maiz izaten dituzte eztabaidak.**

- **Rolak nahasi egiten dira.**

Rolak alderantzikatu egiten dira, seme-alabak guraso bilakatzen dira... Esate baterako: seme-alabek helduen erabakiak hartu behar dituzte, helduek haien esku utzi dituzte-eta erantzukizunak; edo seme-alabek etengabe entzun behar dituzte helduek bata besteaz dituzten kezak.

- **Jokabide autoritarioa eta arduragabea.**

Arduragabetasuna dela eta, alderdi hauek ez dira behar bezala kudeatzen:

- Beharrian fisikoekiko errespetua: elikadura, osasun fisikoaren zaintza, jantziak, norbanakoaren higiena, etxebizitzaren higiene-baldintzak, egonkortasuna eta etxebizitzaren bizitzeko baldintzak.
- Segurtasun-beharrizanak: etxebizitzako segurtasun fisikoa eta arrisku-prebentzioa, ikuskapena, beste pertsona batzuek jokabideen ondorioz sortutako babesgabetasun-egoerei aurre egiteko babesa.
- Prestakuntza-premiak (ez dira kontuan hartzen).

- o Beharrian psikikoak: elkarri eragiteko eta afektua bizitzeko premia; estimulazioa; arazo emozional larriei arreta espezifikoak ematea; arauak, mugak eta balio moral positiboak transmititzea.

□ Adostasunik eza eta gatazka.

Harreman-gatazka larriak daude, kideek ez dute behar adina arreta jasotzen edo indarkeria-egoerak gertatu dira.

Gatazkaren zergatiak:

- o Indarkeria eta tentsio etengabea.
- o Zentro instituzionaletan utzia izatea: adingabeak edo nagusiak.
- o Behin-behineko esku-hartze jakin baten ostean; esate baterako, ospitaleratua izan ostean edo gizarte-larrialdiko egoerei aurre egiteko, familiari atsedean emateko, adingabeen zaintza hartzeko eta abarrerako gizarte-laguntza jaso ostean.
- o Tratu txarrak:
 - Fisikoak.
 - Emozionalak eta psikologikoak.
 - Materialak eta ekonomikoak.
- o Abusua edo sexu-erasoak.
- o Etxea uztea.
- o Etxetik botatzea edo ihes egitea.
- o Galbideratzea, esplotazioa.
- o Nahi gabeko haurdunaldi goiztiarra, aitasun goiztiarra, gurasoei dagozkien erantzukizunak hartzeko heldutasunik eza.
- o Pertsonak zaintzea, bai eta arreta bereziz zaintzea ere.
- o Bizikidetzaren unitateko kideak kontrolatzeko ezintasuna.
- o Gaixotasun kronikoa edo akutua.
- o Desegituraketa.
- o Beste egoera estresagarri batzuk.

□ Ez dagokio: pertsona bakarreko etxea.

6.1.2. adierazlea.- Erakunde bateko edo bizileku kolektibo bateko bizikidetzaren taldea.

□ Harreman egokiak.

- Langileekin eta gainerako erabiltzaileekin adeitasunez jokatzeko du.
- Gizalegez eta errespetuz jokatzeko du.
- Ez du gatazkarik sortzen; ez du haietan parte hartzen.
- Bizikidetzaren arauak edo erakundearen araudia betetzen ditu.

□ Zailtasunak ditu harremanetan.

- Erabiltzaileekin.
- Erakunde edo bizilekuko langileekin.

□ Harreman ezegokiak ditu:

- Beste erabiltzaileekin dituen harremanetan, gatazka larriak sortzen ditu.
- Erakunde edo bizilekuko langileekin dituen harremanetan, gatazka larriak sortzen ditu.
- Behin eta berriro kanporatzen dute erakunde edo bizilekuetatik.
- Beste erabiltzaileei edo zerbitzuko langileei eraso die.
- Beste erabiltzaileek edo zerbitzuko langileek eraso egin diote.
- Beste erabiltzaileei edo zerbitzuko langileei gauzak lapurtu dizkie.
- Beste erabiltzaileek edo zerbitzuko langileek gauzak lapurtu dizkiote.
- Ihesaldiak, matxinada, bizikidetzaren arauak behin eta berriro ez betetzea.

6.1.3. adierazlea.- Bizilekurik gabeko gizabanakoak.

- Ez du harreman-arazorik egunero topatzen dituen pertsonekin.**
- Zailtasunak ditu harremanetan.**
 - Erakunde-arloan: egokitzeko zailtasunak.
 - Komunitate-arloan: zailtasunak ditu auzokideekin, dendariekin, poliziarekin...
- Harreman ezegokiak eta gatazkak.**
 - Erasoak, jipoiak, irainak eta sexu-erasoak jasotzea, jazarria izatea.
 - Erakunde-arloan, erabiltzaileen eta langileen erasoen biktima izatea, gauzak lapurtzea...
 - Poliziak jazarri egiten du.
 - Kanean non egoten den, handik igarotzen diren herritarrak ernegatu egiten dira berarekin.
 - Oldarkor jokatzeko du.
 - Gatazkak ditu erakundearekin; hainbatetan kanporatu dute bertatik.

6.2. adierazlea.- Familia zabalarekin dituen harremanak.

Bizilagun ez dituen senideez ari gara.

- Harreman positiboak. Ez du gatazkarik.**
- Harremanek okerrera egin dute.**
- Ez du harremanik edo/eta gatazka larriak dituzte.**
- Ez dagokio.**

6.3. adierazlea.- Auzokideekin dituen harremanak.

- Harreman positiboak. Ez du gatazkarik auzokoekin.**
- Auzokideekin dituen harremanek okerrera egin dute.**
- Gatazka bortitzak eta tentsio etengabea ditu auzokideekin.**
- Ez dagokio.**

6.4. adierazlea.- Bizikidetzaharremanak: norbanakoa eta senideak.

- Ez du gertakari zinez estresagarririk bizi izan. Ez du indarkeriarik bizi izan senideekin.**
- Gertakari zinez estresagarriak bizi izan ditu.**
- Gertakari zinez estresagarriak bizi izan ditu behin eta berriz.**

Gertakari zinez estresagarriak (2 eta 3 aukerak):

- o Indarkeria eta tentsio etengabea.
- o Zentro instituzionaletan utzia izatea: adingabeak edo nagusiak.
- o Behin-behineko esku-hartze jakin baten ostean; esate baterako, ospitaleratua izan ostean edo gizarte-larrialdiko egoerei aurre egiteko, familiari atsedean emateko, adingabeen zaintza hartzeko eta abarrerako gizarte-laguntza jaso ostean.
- o Tratu txarrak.
 - Fisikoak.
 - Emozionalak eta psikologikoak.
 - Materialak eta ekonomikoak.
- o Abusua edo sexu-erasoak.
- o Etxea uztea.
- o Etxetik botatzea edo ihes egitea.
- o Galbideratzea, esplotazioa.
- o Nahi gabeko haurdunaldi goiztiarra, aitatasun goiztiarra, gurasoen erantzukizunak hartzeko heldutasunik eza.
- o Pertsonak zaintzea, bai eta arreta bereziz zaintzea ere.
- o Bizikidetzaren unitateko kideak kontrolatzeko ezintasuna.
- o Gaixotasun kronikoa edo akutua.
- o Desegituraketa.
- o Beste egoera estresagarri batzuk.

Ez dagokio: pertsona bakarreko etxea.

7. ALDERDIA.- EGUNEROKO BIZITZA: ANTOLAKETA.

Alderdi honetan, besteak beste, eginkizun hauek hartuko ditugu kontuan: etxebizitza antolatzea, eginbeharrak antolatzea (hala badagokio), ohiturak hartzea, denbora antolatzea, erabakiak hartzea eta lehentasunak ezartzea.

Adierazleak bi azpialderditan banatu ditugu, gizabanakoa bizikidetzaren talde bateko kide den edo bakarrik bizi den.

7.A. alderdia.- Familia-bizikidetzaren taldearen eguneroko bizitza: antolaketa.

7.A.1. adierazlea.- Janaria.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Ez dute osasuntsu jateko ohiturarik: janaria ez dute behar bezala prestatzen; beti gauza berak jaten dituzte; edo janaria ez da egokia, adinerako edo gaixotasunerako.

Zailtasun ugari.

Elikadura urria: otordu batzuk ez dituzte egiten, desnutrizioa dute...

7.A.2. adierazlea.- Norbanakoaren / Familiaren higiena.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Ez dute behar besteko higiena-ohitura. Itxura zaborra dute.

Zailtasun ugari.

Higienarik ez: gorputza eta arropa zikin.

7.A.3. adierazlea.- Etxeko higiena.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Ez dute behar besteko higiena-ohitura: etxea, oro har, zikin dago.

Zailtasun ugari.

Higienarik ez: etxebizitza zikinkeriaz pilatuta dago.

7.A.4. adierazlea.- Etxeko ekonomiaren kudeaketa.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Ez dute irizpiderik gastuak banatzeko: ez dago lehentasunik; ez dute aurrezten, nahiz eta behar besteko sarrera izan.

Zailtasun ugari.

Ez dituzte gastu egokiak egiten: gastuak gaizki kudeatzen dituzte, ez dituzte oinarrizko premiak betetzen eta oinarrizkoak ez diren gauzak erosten dituzte.

7.A.5. adierazlea.- Etxeko eginbeharren banaketa.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Pertsona bakar bat arduratzen da eginbeharrak egiteaz, nahiz eta beste batzuk, berez, eginbeharrak egiteko gai diren.

Zailtasun ugari.

Etxeko eginbeharrak ez dira egiten, edo, nagusien arduragabekeria dela eta, adingabeek egin behar izaten dituzte.

7.A.6. adierazlea.- Adingabeen arreta eta hezkuntza.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Arauk jartzen dituzte, baina gutxitan betetzen dira. Zailtasunak dituzte jokabide batzuk kontrolatzeko eta errespetatua izatea lortzeko.

Ordutegiei, eskolako jarraipenari eta halakoei dagokionez, ez dago antolaketa-rik.

Zailtasun ugari.

Ez dago araurik: ez dituzte jarduerak kontrolatzen, ez eta gainbegiratzen ere. Gurasoek ez dituzte beren eginkizunak betetzen. Adingabeak bakarrik egon ohi dira etxean, edo haiek zaintzeko gai ez diren pertsonekin. Zerbitzu batzuk (arreta medikoa tarteko) ez dituzte behar duten guztietan jasotzen.

7.A.7. adierazlea.- Familiako erantzukizunen banaketa.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Erantzukizunak gutxi banatzen dituzte.

Arazoak dituzte, ohiko zaintzaileak kanpoan daudelako aldi baterako, lanagatik gaixotasunagatik edo oporregatik.

Zailtasun ugari.

Erantzukizunak ez dituzte behar bezala kudeatzen.

Erantzukizunak beren gain hartu ohi dituztenak lanez gainezka daude.

7.B. ALDERDIA.- BIZIKIDETZA-TALDERIK GABEKO GIZABANAKOAK: EGUNEROKO BIZITZAREN ANTOLAKETA.

7.B.1. adierazlea.- Janaria.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Ez du osasuntsu jateko ohiturarik: janaria ez du behar bezala prestatzen; beti gauza berak jaten ditu; edo janaria ez da egokia, adinerako edo gaixotasunerako.

Zailtasun ugari.

Elikadura urria: otordu batzuk ez ditu egiten, desnutrizioa du...

7.B.2. adierazlea.- Norbanakoaren higiena.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Ez du behar besteko higiena-ohitura. Itxura zabarra du.

Zailtasun ugari.

Higienetik ez: gorputza eta arropa zikin.

7.B.3. adierazlea.- Etxeko higiena.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Zailtasun ugari.

Ez dagokio (ez du ostatulekurik).

7.B.4. adierazlea.- Osasun-zaintza.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Ez du bere burua behar bezala zaintzen, eta ez du dieta egokia.

Zailtasun ugari.

Ez du bere burua batere zaintzen.

7.A.5. adierazlea.- Etxeko ekonomiaren kudeaketa.

Zailtasunik ez.

Zailtasun batzuk.

Zailtasun ugari.

8. ALDERDIA.- BIZIKIDETZA-HARREMANAK: BESTE TESTUINGURU BATZUK.

8.1. adierazlea.- Eskola-bizikidetza.

Gainerako adingabeekin, irakasleekin eta zerbitzuetako langileekin dituen harremanez ari gara.

Arazorik ez.

Bizikidetza-arazoak.

Eskolatzeko zailtasunak.

Zailtasunak ditu harremanak egiteko edo harremanei eusteko eta onartua izateko. Mendetasun handiegia izan ohi du besteekiko. Zailtasun horiek etniarekin, erlijioarekin, osasunarekin, jokabidearekin eta abarrekin lotuta daude.

- Adingabeak jokabide-arazoak ditu.**
- Adingabeak edo senideek jarrera negatiboa dute.**
Ez dute motibaziorik edo interesik. Arauak hausten dituzte.
- Bizikidetza-arazo larriak.**
 - Oso harreman ezegokiak daude ikastetxean.**
Ikaskideen artean, irakasleen eta adingabearen artean, familiaren eta ikastetxearen artean edo familiaren eta ikastetxeko norbaiten artean. Jokabide disruptiboak, erasoak, mehatxuak, ihesaldiak, delituzko jokabideak...
 - Arazo psikologikoak edo jokabide arazoak ditu.**
 - Bullying: biktima.**
 - Bullying: erasotzailea.**
Bullyinga (eskola-jazarpena): edozein motatako tratu txarrak; psikologikoak, fisikoak edo hitzezkoak. Ikasleen artean gertatzen da, behin eta berriz eta denbora-tarte jakin batez.

8.2. adierazlea.- Laneko bizikidetza.

- Arazorik ez.**
- Bizikidetza-arazoak.**
- Bizikidetza-arazo larriak.**

8.3. adierazlea.- Bizikidetza: beste prestakuntza- eta lanbide-eskola batzuk.

- Arazorik ez.**
- Bizikidetza-arazoak.**
- Bizikidetza-arazo larriak.**

8.4. adierazlea.- Bizikidetza: egunean zehar egoteko aukera eskaintzen duten gizarte-zerbitzuetako bizikidetza.

- Arazorik ez.**
- Bizikidetza-arazoak.**
- Bizikidetza-arazo larriak.**

ZUZENBIDE- ETA ADMINISTRAZIO-EGOERA: Bizikidetza-arloa

T.5. adierazlea.- Etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko eskubidea.

- Etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko eskubidea du.**
- Zailtasunak ditu eskubide hori betetzeko.**
Bizileku kolektiboetara jo behar du. Bere etxebizitza partekatu behar du.
- Ezin du eskubide hori bete.**
Ez du etxebizitarik edo bizilekurik.

T.6. adierazlea.- Senideen arteko mantenu-eskubidea.

Kode Zibilaren 142. artikuluan eta hurrengoetan jasotako eskubidea aztertzen du adierazle honek. Ikus dokumentu honen 2. eranskina.

- Onuraduna da:**
 - Ebazpen judizial batek aginduta.**
 - Judizialki aitortu ez badiote ere.**
Laguntza jasotzen du, familia-unitateko kideei mantenua emateko.
- Ez diote judizialki aitortu. Senitartekoek noizbehinka edo hein batean ematen diote.**
Laguntza jasotzen du, familia-unitateko kideei hein batean ezinbesteko mantenua emateko. Laguntza eskatu egin behar du.
- Ez da onuraduna:**
 - Ez du senitartekorik eskubide hori eskatzeko.**
 - Ez du judizialki eskatu, nahiz eta obligazio hori duten senitartekoak badituen.**
Ez du laguntzarik jasotzen bere familia-unitateko kideei mantenua emateko. Ukatu egiten diote, edo ez dira arduratzen ea laguntzarik behar duen.
 - Mantenu-eskubidea eskatu du, eta izapideak egiten ari dira.**
- Ez dagokio.**

T.7. adierazlea.- Ezintasunaren aitortpen judiziala: adin nagusikoak.

Ezintasunaren aitortpen judizialaz ari gara. Kode Zibilaren 200. artikulua araberan, "ezintasun-arrazoiak dira norberari bere burua gobernatzea galarazten dioten gaixotasun edo akats iraunkorrak, fisikoak izan nahiz psikikoak izan.

Ezintasuna legez aitortzeak ez du esan nahi eskubideak galtzen direnik; aitzitik, ezintasuna duen pertsonari aukera ematen dio bere eskubideak betetzeko eta beste pertsona baten bidez edo haren laguntzarekin bere interesak defendatzeko.

- Badu ezintasunaren aitortpena.**
Epai irmoa.
- Aitortpena bideratzen ari dira.**
- Prozedura ez da hasi. Hausnartzen ari dira aitortpen hori behar duen.**
Lehen eta bigarren mailako sareko kideak hausnartzen ari dira aitortpen hori behar duen.
Tutore informala eginkizuna betetzen duen pertsona baten laguntza dutenak ere hemen sartzen dira.
- Ez dagokio.**
Ez du ezintasunik.

T.8. adierazlea.- Epailleak hala erabakita, zaintzeko eta babesteko eginkizuna duten pertsonak.

- Guraso-ahal luzatua.**
Ezintasuna duen gizabanakoa adingabea bada eta gurasoekin (biekin edo bietako batekin) bizi bada, epailleak guraso-ahala luzatuko du, gurasoek guraso-ahala izan dezaten adingabea adinez nagusi egiten denean.
- Guraso-ahal itzulia.**
Baldin eta ezintasuna duen gizabanakoa nagusia eta ezkongabea bada eta gurasoekin bizi bada (biekin edo bietako batekin).
- Tutoretza.**
Norbaiti erabateko ezintasuna aitortuz gero, gurasoek erabiltzen duten guraso-ahalaren ordean, zaintza-mota hori ezartzen da bere burua eta bere ondareak gobernatzeko.
Tutoreari dagokio tuteratzapekoa zaintzea, eta ,bereziki:

1. Mantenua ematea.

2. Tutoretzapekoari gaitasuna eskuratzen edo berreskuratzen laguntzea, bai eta ondo gizarteratzen laguntzea ere.
 3. Urtero-urtero, epaileari informazioa ematea adingabearen edo ezinduaren egoerari buruz, bai eta administrazioaren urteko kontu-arrazoia ematea ere.
- Kuradoretza.**
Norbaiti ezintasun partziala aitortuz gero, zaintza-mota hori ezartzen da, egintza juridiko jakin batzuk egiten laguntzeko. Ez da legezko ordezkari (tutoretza da hori).
Kuradoretza ezartzen duen epaian zehaztu beharko da zer egintzatan esku hartuko duen kuradoreak.
 - Defentsa judiziala.**
Ezintasuna duten pertsonak ordezkatzeko edo haiei laguntzeko ezartzen den behin-behineko zaintza-mota da. Bi kasutan ezartzen da:
 - o Tutoretzaren, kuradoretzaren edo guraso-ahalaren mende dagoen pertsonaren eta tutorearen, kuradorearen edo guraso-ahala duenaren artean interes-gatazkak daudenean.
 - o Tutoreak edo kuradoreak bere eginkizunak betetzen ez dituenean.
 Epaileak eskuduntza batzuk emango dizkio defentsa judizialerako izendatutako pertsonari, eta pertsona horrek kudeaketaren kontu-arrazoia eman beharko dizkio epaileari, defentsa judiziala amaitu ostean.
 - Ez dagokio.**

T.9. adierazlea.- Babes-eginkizunak betetzea.

Tutoreek, kuradoreek eta defentsa judiziala dutenek beren babes-eginkizunak bete behar dituzte. Epaileak eta Fiskaltzak gainbegiraturik egingo dira eginkizun horiek.

Tutore informal gisa aritzen diren pertsonak aztertzeke ere erabiliko dugu adierazle hau.

- Babes-eginkizunak behar bezala betetzen dira.**
Tutoretza, kuradoretza edo defentsa judiziala senide batek, foru-administrazioak edo beste pertsona fisiko batek du, eta eginkizunak behar bezala betetzen ditu.
- Gizabanakoa eta haren ondasunak ez dira behar bezala babesten.**
Eginkizunak ez dira behar bezala betetzen, eta horrek kalte egiten dio gizabanakoaren bizi-kalitateari: ez dituzte haren premiak beti asetzen, ez dira haren osasunaz arduratzen, ez eta alderdi emozionalaz ere...
- Babes-eginkizunei ez zaie jaramonik egiten; hortaz, gizabanakoa eta haren ondasunak ez dira babesten.**
Eginkizun horiek dituen ez da arduratzen ezintasuna duenaren mantenuaz, zaintzaz eta babesaz. Ezintasuna duenak ez du laguntzarik.
- Ez dagokio.**

T.10. adierazlea.- Adingabeen babesa.

Tutoretza edo adingabeen zaintza.
Kontuan hartzen dira, halaber, kuradoretza —adingabeek adin nagusitasuna ez dutenean edo emantzipatuta daudenean eta gurasoek lagundu ezin dietenean— eta defentsa judizialak.

Bakarrik emigratu duen adingabe atzerritarra, babestua.

Adingabea: arrisku-egoeran dago.

“Arrisku-egoerak dira haurren edo gaztetxoaren garapen pertsonalari edo sozialari kalte egin diezaioketen egoerak, babes-gabeziatzat jo ezin daitezkeenak eta, hortaz, legeak agindutako tutoretzarik ezartzea eskatzen ez dutenak”.

(Otsailaren 18ko 3/2005 Legearen, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoaren, 51. artikulua).

Adingabea: egoera babesgabean dago, hots, babes-neurririk gabe.

Adingabea egoera babesgabean dago, baldin eta tutoretza edo zaintza duen aita, ama edo delako pertsona egoera hauetakoren batean badago:

- o ez da gai babes-eginkizunak betetzeko edo
- o modu desegokian betetzen ditu: haurrak edo nerabeak ase gabeko oinarrizko premiak ditu, eta, horrek, ziur asko, kalte nabarmena egin dio edo egingo dio haren osasunari eta garapenari.

Babesgabetasuneko egoerek arriskua edo babesgabetasuna ekar dezakete, larritasunaren arabera.

Kode zibilaren 172. 1 artikulua ezarritakoaren arabera, babesgabetasun-egoeratzat har daitezke egitez gertatzen direnak, adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horiek burutzea ezinezkoa nahiz modua desegokia izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza morala edo materiala.

Ez dagokio.

T.11. adierazlea.- Etxeko indarkeriaren biktima diren gizabanakoen babesa.

- Babes-agindua du, eta, agindu hori dela medio, babestuta dago.**
- Babes-agindua du; hala ere, biktima arrisku-egoeran dago.**
- Ez du babes-agindurik.**
- Ez dagokio.**

T.12. adierazlea.- Banantzea edo dibortzioa.

- Legez banandua edo dibortziatua; hitzartutakoa betetzen da.**
- Banantzeko edo dibortziazteko izapide judizialak egiten ari dira.**
- Banantzeko edo dibortziazteko zailtasunak:**
 - Beste aldeak ez du hitzartutakoa betetzen.
 - Aztertzen ari garen gizabanakoak ez du hitzartutakoa betetzen.
 - Izatezko banantzea, baina ez dira legezko izapideak egiten hasi.
- Ez dagokio.**

T.13. adierazlea.- Seme-alaben zaintza eta jagoletza.

- Aztertzen ari garen gizabanakoak du.**
- Beste aldeak du.**
- Zaintza partekatua.**
- Beste norbaitek du:**
 - o Familia zabaleko kide batek.
 - o Administrazioaren esku.
 - Familia zabala
 - Harrera-familia
 - Harrera-etxebizitzak
 - Beste batzuk.

T.14. adierazlea.- Seme-alaben zaintza eta jagoletza: obligazioak betetzea.

- Amak nahiz aitak betetzen dituzte erantzukizunak.
- Hitzartutakoa noizbehinka eta hein batean betetzen du:
 - o Aztertzen ari garen gizabanakoak.
 - o Beste aldeak.
 - o Batak zein besteak.
- Hitzartutakoa, oro har, ez du maiz betetzen:
 - o Aztertzen ari garen gizabanakoak.
 - o Beste aldeak.
 - o Ez batak ez besteak.

T.15. adierazlea.- Amarekin nahiz aitarekin harremanak izateko eskubidea.

- Eskubide hori betetzen da.**
- Bisita-araubidea ez da betetzen.**
- Eskubide hori ez da betetzen, eta ez dago hitzarmen arauemailerik eskubide hori arautzen duenik.**
- Ez dagokio.**

T.16. adierazlea.- Seme-alaba adingabeekin guraso-agintea betetzea.

- Aginte hori du, eta behar bezala betetzen du.**
- Guraso-agintea kendu diote.**

Gaur egun, seme-alabak babesgabetasun-egoeran daude, erakunde publiko baten tutoretzapean (harrera-etxebizitza batean, harrera-familia batean, familia zabaleko kideekin edo besteren familiako kideekin).
- Ez du guraso-aginterik.**

Gaur egun, erakunde publiko batek adoptatu edo babespean hartu ditu seme-alabak.
- Ez dagokio.**

1. ERANSKINA: ETXEBIZITZEN BIZITZEKO BALDINTZAK

Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren IV. eranskina (ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko Dekretua). (2002/12/31ko EHAA)

1.- Etxebizitzak gutxienez bizitzeko egoki diren bi espazio bereizi izatea, barne hartuta sukaldea, jangela, egongela, bi oheko logela eta komuna. Ezin izango dira espazio berean jarri sukaldeari eta logelari dagozkien eremuak.

2.- Gelak bereizi egin beharko dira. Gela horiek ezin izango dute igarobidetzat izan logelaren bat. Halaber, logela bat ezin izango da izan komunerako pasabide. Logela bakarra izanez gero, komuna hari erantsita egon daiteke.

3.- Bizitzeko egokiak diren espazioek (komunak, sukaldeak eta jakitokiak izan ezik) zuzenean kalera jotzen duten beirazko irekiuneak izango dituzte. Arkitektura dela-eta hori lortzea ezinezkoa bada, espazio horietako bat argia duen beste baten bidez edo eskailera-begiaren bidez argituko da; betiere, horra nahikoa argi iristen bada goitik edo galeria edo antzeko beste espazioren baten bidez. Zuloen azalera ezin da izan haien bidez argitzen den guztizko azaleraren 100eko 10 baino txikiagoa; betiere, eskailera-kaxaren bidez argitzen ez bada. Kasu horretan aipatutako balioaren erdia izan daiteke.

4.- Espazio guztiek kanpoko zuzeneko aireztapena izatea (komun eta jakitokietara bideratutakoek izan ezik), eta guztizko argiztapen-azaleraren 1/3 izatea. Kasu honetan ere, 3. idatz-zatian adierazitakoak onartzen dira.

Zuzenean aireztatzen ez diren komunak ezin izango dira beste logela baten bidez aireztatu. Horrelakoetan, airea berritzeko eta garbitzeko aireztatze-sistema behartu bat jarri beharko da.

Sukaldeak beti izan beharko du erauzle behartu independente bat, sukaldean sortzen diren ur-lurruna, gasak eta kea kanporatzeko.

5.- Patioek bizitzeko egokiak diren espazioak argitzea eta aireztatzea, gutxienez zazpi metro koadroko azalera izatea eta zuzeneko argia bi metrokoa izatea gutxienez. Patioak eraiki berriak edo berritutakoak izatea.

Patioak bere dimentsioei eutsi ahal izango die, baldin eta lehendik badago eta berritzen ez bada.

6.- Etxebizitzaren azalera erabilgarria ez izatea 37 metro koadro baino txikiagoa. Espazioek gutxienerako azalera hauek izango dituzte:

Sukaldea	5 m ²
Sukalde-jangela	8 m ²
Egongela	10 m ²
Logela nagusia	10 m ²
Bi oheko logela	8 m ²
Ohe bakarreko logela ...	6 m ²
Komuna	1,5 m ²

Etxebizitza guztiek izan beharko dituzte gutxienez logela nagusi bat, egongela, sukaldea eta komuna.

Sukaldea, egongela eta jangela gunek bakar baten bilduz gero, gunek horrek 18 metro koadroko azalera erabilgarria izango du gutxienez.

7.- Eraikin bateko etxebizitzetako solairuen garaierak beren horretan utzi ahal izango dira, betiere 2,20 metrokoak edo gehiagokoak badira, eta erakinek egitura-segurtasun ona badu.

1,50 metro baino gutxiagoko garaiera librean duten ganbarak ez dira metro koadro erabilgarritzat joko. Horretaz gainera, azalera bereko eta 2,20 metroko garaierako logela batek baino bolumen handiagoa izan beharko dute ganbarek.

8.- Beheko solairuan etxebizitzaren bat badago, isolamendu termikoa duela eta material hidrofugo eta isolatzaile egokien bidez iragazgaituta dagoela bermatu beharko da.

9.- Ur beltzak estolderia-sare orokorrera isurtzea, hodi iragazgaitzen eta aireztatuen bidez. Horrelako sarerik ez badago, likidoa arazteko hobi septiko egokiak erabiliko beharko dira, ur-lasterrera edo lurrera isuri baino lehenago.

10.- Komunak komun-ontzia, konketa eta dutxa izatea, gutxienez.

11.- Etxebizitzaren argindar-instalazioak Behe Tentsioko Araudia betetzea.

12.- Etxebizitzak berogailu-instalazioa izatea.

2. ERANSKINA: Kode Zibila: mantenu-eskubidea

142. artikulua.

Mantenu gisa hartzen da elikagaiak, gelak, arropak eta osasun-laguntzak izateko behar den guztia.

Halaber, mantenu-hartzailea adingabea den bitartean, mantenuak bere barruan hartzen ditu mantenu-hartzaile horren hezkuntza eta haziera. Mantenu-hartzailea adin nagusikoa bada eta, hari egotzi ezin zaion arrazoiren baten ondorioz, heziketa amaitu ez badu, heziketa horren gastuak ere mantenuaren barruan sartuko dira. Mantenuaren barruan sartuko dira haurdunaldiak eta erditzeak eragindako gastuak, gastu horiek ez badaude beste modu batez estalita.

143. artikulua.

Elkarri mantenua eman behar diote, aurreko artikuluan adierazitako arlo guztietan:

1. Ezkontideek.
2. Aurrekoek eta ondorengoek.

Bizitzeko beharrezkoak diren laguntzak kasu honetan soilik zor dizkiote elkarri neba-arrebek: laguntza horiek berentzat nahitaezkoak direnean, mantenu-hartzaileari egotzi ezin zaion arrazoiren baten ondorioz. Hala badagokio, neba-arrebon hezkuntzarako beharrezkoak diren laguntzak ere zor dizkiote elkarri.

144. artikulua.

Mantenuaren erreklamazioa bidezkoa izan eta mantenu hori eman behar dutenak bi edo gehiago direnean, honako hurrenkera honetan eskatuko zaie mantenua:

1. Ezkontideari.
2. Ondorengo hurbilenei.
3. Aurreko hurbilenei.
4. Neba-arrebei; edonola ere, neba-arrebek azken lekuan eman behar dute mantenua, sabelkideak edo odolokideak besterik ez badira.

Ondorengoan eta aurrekoen artean, mailaketa arautuko da, mantenu-eskubidea duen pertsonaren legezko oinordetzara nori deitu eta horien arteko hurrenkeraren arabera.

Mantenu-eskubidea eta eskubide horren prestazioak bereizi egin behar dira. Eskubidea abstraktua da: premia duenak eska dezake. Prestazioa zehatza da eta obligazio baten bidez adierazten da, diru-pentsio bat ezarriz edo mantenu-prestazioa emateko obligazioa duen senitartekoaren etxean ostatu hartuz eta biziz.

Ahaidetasunak zenbait obligazio dakarzkie ahaide hurbilenei: laguntza fisiko batzuk eman behar dizkiote elkarri. Legedian eta Kode Zibilean, ahaideen arteko mantenu-eskubide deritze laguntza horiei.

Aginte publikoek zenbait obligazio dituzte herritarrei begira. Dena den, horrek ez du esan nahi senitartekoek ez dituztela elkarrekiko obligazio horiek. Administrazioen obligazioak eta senitartekoaren bereizirik daude. Aginte eta administrazio publikoek edozein konpromiso hartzen dutela ere, senitartekoek obligazioak dituzte elkarrekiko.